



Eraman haur bat Antzerkira

Martxoaren 20

Ikusi ahal izango du, entzun,
sentitu, pentsatu eta irudikatu



Haur eta Gazteentzako Antzerki eta Arte Eszenikoen Munduko Eguna 2023

Haur eta gazteentzako Arte Eszenikoen Munduko Eguna ASSITEJen kanpaina bat da, "Eraman haur bat antzerkira, gaur" mezuaren bidez ospatu eta sustatua.

Ikuspegi horrek aukera ematen die egitura nazionalai, kide indibidualei, konpainiei, erakunde artistikoei, akademikoei, maisuei, artistei, profesionalai eta antzerkian interesa duten beste batzuei, ikusle gazteentzat munduko egunaren ideiarekin konektatzeko eta haurrek antzerkirako eta arte eszenikoetarako duten eskubidea "defendatzeko".

ASSITEJeko kide guztiak gonbidatuta daude urtero data honetarako egiten diren mezuak sustatu eta zabaltzera, ASSITEJen filma partekatuz eta jarduera gehigarriak, handiak zein txikiak, ospatzera. Urtero, mundu osoko ASSITEJ zentroek #takeachildtothetheatre programarekin lotutako hitzaldiak, emanaldiak, tailerrak eta komunikabideentzako ekitaldi bereziak eskaintzen dituzte.

Jaitsi Antzerkiaren Munduko Egunaren logoa hemen.

<https://diamundialartescenicas.com/>

Nazioarteko ASSITEJeko presidentearen mezua

Eraman haur bat antzerkira, edo eta eraman antzerkia haurrari!



2023ko martxoaren 20an, antzerkiko eta interpretazioko artistak funtsezko langileak direla aldarrikatu nahi dugu, haur eta gazteen bitzian erabateko eragina dutelako, dauden tokian daudela, eta ikusle horien ezagutza sakon eta espezializatua dutelako. Gazteenentzako antzerkiak eta arte eszenikoek ikuspegi bereizgarria dute; izan ere, haur eta gazteak publiko zorrotz, parte-hartzaile eta kulturgiletzat onartzen dituzte, arteak esperimentatzeko eta adierazpen-askatasunerako eskubidearekin. Gazteenen irudimenari lekua eta errespetua eskaintzeak haien erresilientzia eta konfiantza eraikitze oinarriak sendotzen ditu.

ASSITEJ erakundearen helburu nagusietako bat da mundu osoko profesionalak bateratzea, eta horren bidez aukerak egonkortzea mundu osoko ikusle gazteenek antzerkiak eta ikuskizunak eskaintzen dutena esperimenta dezaten, hala nola, emozioaren adierazpena, ukiezinaren ilustrazioa, edo eta mundu konplexu baten interpretazioa.



Eraman haur bat Antzerkira

Martxoaren 20

Ikusi ahal izango du, entzun,
sentitu, pentsatu eta irudikatu



Horretarako, gure mundu-sareak eskaintzen duen arte-sorkuntzaren aniztasun guztiari adi egon behar dugu, eta mugetatik, erronketatik eta testuinguru espezifiketatik sortzen den berrikuntza baliatu behar dugu.

Batzuetan ezin ditugu haurrak antzokietara eraman. Batzuetan ez dago antzoki izan daikenean ere. Batzuetan oztopo fisiko, ekonomiko, geografiko edo sozialek ezinezko egiten dute halakorik. Hala ere, gure erakundeko mundu-komunitatea eztabaidatzeko edo ideiak partekatzeko biltzen den bakoitzean, bai internet bidez, bai aurrez aurre, jabetzen gara artistek eta sortzaileek zein modu ezberdinetan egiten duten posible antzerkia eta ikuskizunak publiko gazteenei helaraztea, bakoitza bere inguru-mariari etekinik handiena ateraz. Zein zoragarria den hainbeste adibide entzutea, nola egiten duten haurrak eta gazteak dauden tokietara iristeko: haien eskoletara, hartzaindegietara, kaleetara, gune komunitarioetara, ospitaleetara, kirol-zelaietara, espetxeetara, etxeetara, leku publikoetara, ordenagailuetara edo telefono zein irratietara.

Hainbatetan istorio apartak ezagutu ditugu, ekinari, ausardiari eta irmotasunari buruzko istorio eredugarriak, eta gure komunitate sortzaileak urrutirago iristeko, beharrak asetzeko eta irismen handiagoa errazteko erabiltzen dituen forma guztiak txalotzen ditugu.

Antzerkiak eta ikuskizunak badu ez edonolako xedea: pertsonen arteko kontaktua, ideien hedapena, itxaropenen trukea, alaitasunaren eztanda ahalbidetzea. Dela antzoki batean, dela karrika batean, mirari bat sortzen bada, une partekatu bat, edo erritual iradokitzaile bat, bizitza bat eralda daiteke, une batez bada ere. Antzerkiaren eta arte eszenikoen bidez ezagutzen dugu batzen gaituen eta horizontea zabaltzen duen eremu komuna.

Haur eta Gazteentzako Antzerkiaren Munduko Egun honetan, sektore honetan lan egiten dugun guztioi oraindik ezagutzeke geratzen zaigun publiko gaztea bilatzeko eskatzen dizuet. Antzerkirako edo eta ikuskizunetarako irisgarritasuna ez da beti partekatua edo posible; beraz, guri dagokigu, eremu hortan adituak garenoi, hori posible egitea, non eta nola. Beharrezkoak gara, gure testuinguru guztietan, gure praktika guztietan, errealitatearen eta irudimenaren arteko zubiak sortzeko eta haur eta gazte guztiei loratzeko aukera ahalbidetzeko.

Sue Giles AM

Nazioarteko ASSITEJeko presidentea.



Eraman haur bat Antzerkira

Martxoaren 20

Ikusi ahal izango du, entzun,
sentitu, pentsatu eta irudikatu



2023 Ukrainako eta Irango Haurren Antzerkiaren Munduko Eguneko mezuak.

Pandemiaren ondoren, badirudi dena normaltasunera itzultzen ari dela. Hala ere, oraindik ere pertsona askok, bereziki haurrek, zailtasunak dituzte mundu osoan, hala nola gerrak eta ezegonkortasun sozialak. Garrantzitsua da haien ahotsei arreta eskaintzea eta antzerkia eta arte eszenikoak zenbat maite eta behar dituzten onartzea, egoera latzak gorabehera.

Hauek dira Ukraina eta Irango haurren mezu batzuk. Ukrainako bi haurrak Txernihivekoak dira, baina horietako bat Polonian dago gaur egun. Irango neskatzaileen izena ez da aipatzen segurtasun arrazoiengatik.



Faina Shyrokorad (Txernihiv, Ukraina, 9 urte)

Antzerkia beti izan da nire bizitzaren parte. Nire ama aktorea da. Otsaila baino lehen (2022ko otsailaren 24an, Errusiaren eskala handiko inbasioaren hasieran) Txernihiv antzokian lan egin zuen. Antzerkian hazi nintzen eta denbora asko eman nuen han haurra nintzenetik. Hainbat antzokitan ere maiz joan nintzen beste obra batzuk ikustera.

Antzerkia, izatez, nire haurtzaroa da, jantzi distiratsu eta ederrez, eszenografiarekin eta istorio interesgarri ugariarekin. Paper txiki bat ere izan nuen amaren ondoan.

Chernihiveko Antzerki Klaseetara ere joan nintzen gerra aurreko urte batzuetan. Gure lehen emanaldi handia prestatzen ari ginen: Amama Izoztua ipuina. Protagonista nintzen. Alabaordea antzeztu behar nuen. Baina ezin izan genuen lana amaitu gerra hasi zenean.

Antzerkia asko gustatzen zait, benetako bizitzatik maitagarrien ipuin batera salto egin dezakedalako. Aktorea naiz antzerki klasera joaten naizenean. Edonor izan naiteke! Ipuineko pertsonaia bat, adibidez.

Uste dut antzerkia garrantzitsua dela. Antzokian zaudenean, barre eta negar egin dezakezu. Antzezpeneak batzuetan tristetu egiten zaituzte. Batzuetan ikuskizunek gauza garrantzitsuetan pentsarazten dizute eta zure ametsak egia bihurtu ditzakezu antzerkiarekin.



Eraman haur bat Antzerkira

Martxoaren 20

Ikusi ahal izango du, entzun,
sentitu, pentsatu eta irudikatu



Mariia Drozdova (Txernihiv, Ukraina, 11 urte)

Asko gustatzen zait antzerkia. Obrak ikustea baino gehiago, antzeztea gustatzen zait. Gustatzen zait nola bihur daitezkeen pertsonak pertsonaia desberdin, horretarako emozioak, keinuak, aurpegi-adierazpena eta jokoa erabiliz.

Nire jaioterrian, Txernihiven, antzerki-klaseetara joan nintzen gerra hasi baino urte batzuk lehenago. Beste hurrekin batera, antzezteaz gain, atrezzoak ere egin genuen eta eszenografia diseinatu genuen. Beraz, guk geuk sortu genuen guztia. Iraganean emanaldi asko egin genituen. Paper ezberdinak jokatu nituen. "Txori urdina" obran nire anaia zaharrenarekin aritu nintzen. Oso dibertigarria izan da!

Uste nuen bi paper guztiz desberdin izango nituela (Dragoia eta Lapurra) prestatzen ari ginen ikuskizun berri batean. "Zaldirik ez zeukan zaldunaren ipuina" zen. Oso hunkituta nengoen! Zoritxarrez, ez genuen hura egiteko aukerarik izan, gerra hasi zelako. Orain ez ditugu gure asteroko bilerak antzerki-klasean. Klase hauek faltan botatzen ditut. Antzerkian gehien gustatzen zaidana da bat izatetik beste bat izatera nola pasa gaitzkeen. Aktoreek beren ahotsa eta mugimenduak erabil ditzakete, eta beste pertsona bat bihur daitezke. Asko gustatzen zait aktore izatea. Ikuskizun berri batean estreinekoz antzeztea gustatzen zait. Asko gustatzen zait jantziak aukeratu eta egitea. Uste dut antzerkia funtsezko baliabidea dela gaur egun. Horrek esan nahi du beste errealitate bat sortzen dela eta pertsonak errealitate horren barruan daudela. Batzuetan erlaxarazi egiten ditu. Hala ere, antzerkiaren eraginez, jendeak bizitzako gai serioetan pentsatzen du.



Nika Rousta (Teheran, Iran, 14 urte)

Iranen bizi dugun egoera pairatzen ari den nerabea naiz, antzerkirik gabe bizitza ez da oso dibertigarria. Gure herrialdea egoera berezi batean dago, eta 12 eta 19 urte bitarteko gazteak bagara ere, heldu gisa jokatzeko exijitzen digute, eta hori eginda ere, adinekoek isilarazi egiten gaituzte eta esaten dute oraindik gazteegiak garaela antzerki kontuetarako.

Nahiz eta helduok zakartzat jo gaitzaketen, zerbait ez badago ongi, oraintxe Iranen gertatzen ari den bezalaxe, aldatzen saiatzen gara. Gure askatasunaren alde borrokatzen ari gara eta, aldi berean, anai-arreba, haur, lagun eta pertsona onak izaten saiatzen gara. Eta ikusteko zerbait badugu, antzerkia bezala, maitatuak, ulertuak eta estimatuak sentiarazten gaituen antzerkia, horrek aurrera egiten laguntzen digu.



Eraman haur bat Antzerkira

Martxoaren 20

Ikusi ahal izango du, entzun,
sentitu, pentsatu eta irudikatu



Nerabeei dagokienez, identifikatuak sentiarazten gaituzten filmak eta antzezlanak botika ona dira eta errealitatetik ihes egiteko modu ona.

Antzokiak itxita dauden arren, iraganeko lanak Interneten ikustea oso dibertigarria da, eta antzerkia artearen zati garrantzitsua eta sentimenduak irudikatzeko modu bikaina dela uste dut. Faltan botatzen ditut antzerkira familiarekin eta lagunekin joaten nintzeneko egunak. Espero dut dena hobetzea eta normaltasunera itzultzea. Ulertzen dut zergatik artistak ez diren gaur egun antzezten ari.

Espero dugu nerabeentzat lan egiten duten antzerkigileek ulertzea ez garela ez helduak baina ezta haurrak ere. Gure eskubideen alde borrokatzen dugu. Uler gaitzazu eta maita gaitzazu.